

Zumaian autobus zerbitzuaren aldaketa uztailaren 6tik aurrera

Eusko Jaurlaritzaren Sozietate Publikoa den Euskotrenek, Zumaian, Zumaia-Donostia UK09, UK10 eta UK11 lineetako Lurraldebus autobusen zerbitzua aldatuko du uztailaren 6tik aurrera.

Uda iristean, uztailaren 6tik (astelehena) eta abuztuaren 30era (igandea) bitartean, biak barne, Zumaian Txomin Agirreren geralekua kenduko da, eta Patxita Etxezarretan UK09, UK10 eta UK11 lineetako ibilbidearen burualdeko eta amaierako geldialdia egingo da.

Informazio gehiago behar duten erabiltzaileek Euskotrenen telefonoa dute: 944 333 333. Horrez gain, www.euskotren.eus webgunean eta [twitter@euskotren](https://twitter.com/euskotren) webgunean ere jaso daiteke informazioa.

Igorpen data: ostirala, 2020ko uztailaren 3a

